

# Larrahe, eta elkarbizitza



ANE ABLANEDO LARRION  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**N**ire lagun M. paraje paregabean bizi da. Nafarroako herri batean, Iruñerriatik gertu, jende bizizale anitzez betetakoan; bizi-bizia. Ez da herrian bertan bizi, talaiaren antza har dakioken muino moduko batean baizik, zeinetik, esan gabe doa, herria bera ez ezik mendi bista ederrak ere ikusi ahal baitituen, Gipuzkoako batzuenak ere tartean.

Garai batean apezaren etxea zelako, *Apezetxea* deitzen hasi zitzaion, are herriko seme Patxik M.-ri eskuz (eta maitasun handiz) izendapen hori daraman zurezko taila bat egin dion arte, bertan bizitzearen edo bertara gonbidatuak izatearen ohorea dugun lagunei ongiatorria egiten diguna, orduz geroztik.

Oso handia denez, beste jende batzuekin partekatzen ditu M.-k etxeko espazio batzuk, *Apezetxea*-ko komunitate txikia sortuz horrela, poliki, aski oharkabean. Bertako bizilagun izateko baldintza euskalduna izatea da, jakina, eta ez dakizue zein analisi soziologiko eta politikoa egin ahalko litzatekeen bizikide berriren baten bila jartzean M.-k eskakizun hori egiteak sortzen duen zalapartari buruz. Maskotarik ez edukitzea balitz galdegindakoa, edo lan finkoa edukitzea, edo ez erretzailea izatea, edo emakumezkoa izatea, edo nik ez dakit zer nolako pro-

fil zehatza balitz bilatutakoa, ez legoke arazorik, baina euskalduntasuna... ai, amigo.

Hizkuntza eskakizunek ez dituzte epaileak bakarrik asaldatzen. Gure herriaren baitan modu kamuflatu samarrean bizi diren munduko hiritar horien espainoltasunaren piztia nazionalista ere azkar esnatzen da horrelako egoeratan. *Diskriminatzailea* iruditzen zaie, arrazoiak galdetzen edo exijitzen dituzte, ez dutela ulertzen, eta diskurtsoak ematen hasten zaizkio batzuk, batez ere ikusten dutenean M.-k ez dituela justifikazioak ematen. Hala dela, eta kito.

Bestelako egoera batean naturala behar lukeen hizkuntzaren aldeko jarrerara horri zurruna deritzotela esatera ausartzen dira lotsagabeenak, eta aniztasuna eta irekitasunaren balioaz mintzatzen hasten zaizkio, elkarrekin bizitzen ikastearen balioaz, elkarbizitza benetakoa izateko espainolaren presentzia baimenduta egotearen eskakizuna inplizitua balitz bezala, elkarbizitza euskaraz ezinezkoa balitz bezala.

Iragan hilabetean, elizetxe horretan egin zuten Aranzadi elkartekoek Arriaundi mendian topatutako aldarearen aurkezpena, *Larra(he)* dibinitate baskoia eskainitakoarena. Aurkikun-

tzaren protagonista izan diren herritar harroekin batera –auzolanean egin baitituzte indusketa lanak–, bertan izan ziren ordezkari politikoak ere, herrikoak, bailarakoak, eta nola ez, baita Nafarroako gobernutzat hartua den erakunde horretakoak ere.

Bada, sasi-gobernu horren ordezkari anderea ez zen inola ere inbasio eta okupazioen patu zoritxarrekoetik askatu nahi duen gobernu baten izenean aritu, euskal harrotasunezko diskurtso bat eginez, aurkikuntza horren garrantziaren mailan legokeena, baizik eta mende-kotasuna erraietaraino txertatua duen konplexuz betetako euskaldunaren ahotik. Koloniala den erakunde baten ordezkari zari ongi dagokion moduan, bestalde, botere atzerritarrek beretzat errekuperatu duen indigena esaneko eta otzanduen gisan.

Izan ere, zer uste duzue azpimarratu zuela aldare horren aurkikuntzak erakuts dezakeenetik? Lur honen betidani-ko aniztasunaren lekukotza bat dela. Eta zeren aldarria egiteko uste duzue baliatu zuela une historikoa? Etorikizunari begira elkarbizitza hori elikatu beharra-rena. Harrapazan, harrapazak.

Horratx, *elkarbizitza* ulertzeko bi manera diferente. ●